

	<p>* Zalu irakurtzen dutenek USB gakoan diren zati luzeago batzuk irakur ditzakete. <i>“Elenaren bidaia” fitxa.</i></p> <p>2) Lan hori bakarkakoa izanki, zuzenketa ez da taldean egingen. Irakasleak ditu hutsak zuzenduko.</p>
Taldeka	Ikasleek hautatu dituzten gertakariak elkarri konta diezazkieke.
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

6. saioa - XXI. mendeko bidaiari batzuk

Helburuak

Bidaiarien iritzien ulertzea eta bidaiari buruz gogoetatzea
Nork bere bidaia liburuxkaren idaztea


Ikastalde osoa	<p>Ahozkoa adieraz ezazu</p> <p>Bunbuiloetan diren egungo bidaiarien iritzia irakurriko dira eta eztabaidatuko. Ikasleekin bidaiaren xedeak ere eztabaidatuko dira: toki oso ezagunetara ala ez? Zeren egiteko? Zalu ala denbora hartuz? Bakarrik ala lagunekin? ...</p> <p>Bidaia liburuxkak entzunezkoak izan daitezke, paperean idatziak ala digitalak. Zer ote da bidaia liburuxkaren funtzioa? Pertsonala ote da? Besteekin partekatzen ote da? Bidaia liburuxkaren hedatzeko hautatzen den euskarriak ondorioz ba ote du?</p>
Bakarrik	<p>Idatz ezazu</p> <p>Ikasle bakoitzak gustatu zaion bidaia bat kontatuko du, marrazkiak gehituz. Edo gelako bidaiarik antolatzen baldin bada, handik itzultzean idatz lezakete ikasleek.</p>
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

7. saioa - Hiru bidaiariak

lehen 2 saioetan, Hiru bidaiariak ipuina libururik gabe landuko duzue.

Helburuak

Hiru bidaiariak ipuinaren testuinguruaren ezagutzea
Pertsonaien egoeraren ezagutzea eta haien sentimenduen ondorioztatzea


Ikastalde osoa	<p>1) Hiru bidaiariak albuma irakurri aitzin, irakasleak ipuinaren testuingurua eza-gutaraziko die ikasleei. Irakasleak ipuinaren lehen hiru lerroak banatuko dizkie ikasleei, amazigeraz idatzirik. Ikasleek testuari so eginen diote, oharrak eginen eta hitz berdinak inguratuko. Irakasleak ikasleei galdeginen die hizkuntza hori ezagutzen dutenez.</p>
	<p>Ondotik, ikastaldea hirutan zatituko da “Basamortua, berberek, nomadismoa” fitxategian diren dokumentuak irakurrarazteko.</p> <p>“5. Basamortua, berberek, nomadismoa” fitxa.</p> <p>Talde batek berberek buruzko informazioak bilduko ditu eta horien beste ikasleei aurkezten trebatuko da. Mapa bat erabil lezakete. Beste bi taldeek aurkezpen laburrak prestatuko dituzte basamortuari buruz edo nomadismoari buruz.</p>
Ikastalde osoa	<p>Talde bakoitzak testu inguruaren ikuspegi bat aurkeztuko du.</p>
Ikastalde osoa	<p>Irakasleak lehen bi orrialdetako testuak banatuko ditu, euskaraz eta amazigeraz idatzirik. (gaur egun amazigerazko bertsioa ez dugu prest, lehenbailehen ezarriko dugu sarean)</p> <p><i>Ir: “Hiru bidaiariak ipuinaren lehen partea ukanen duzue, euskaraz eta amazigeraz. Nahiz eta amazigera ez ulertu, testuak lerroz lerro parekatuko dituzue. Laguntza gisa hitz horien amazigerazko itzulpena ematen dizkizuet:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - basamortuan - ... <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin-top: 10px;"> <p><i>Gure mundua, basamortutarrena, haizearen eremua da, gure mintzaira, populu ibiltariena, amazigera deitzen da. Gure idazkera, gizon urdinena, nomaden idazkera da.</i></p> <p><i>Dena makila, dena zango, jendeena eta berdin kabalena, dena marra, dena gurutze, eta borobil, dena tita, dena puntu, haizeak basamortuan ezabatzen dituen bideak. Gau beltzeko izar gidariak, egun beroetako harea pikorrak eta harrixkak. Gure mundua, basamortutarrena, eguzkiaren eremua da.</i></p> </div> <p>“6. Hastapeneko testua 2. hizkuntzetan” fitxa</p>
Binaka	<p>Ikasleek bi hizkuntzetan diren testuak lerroz lerro parekatuko dituzte. Irakasleak bikoteak lagunduko ditu hitz batzuen erranahia emanaz. Lerroak parekatu eta ikasleek testua isiltasunean irakurriko dute.</p>
Ikastalde osoa	<p>Irakasleak lehen bi orrialde horiek ozenki irakurriko dizkie ikasleei.</p>
Bakarka	<p>2) Ikasleek gizonen eta emazteen egoerak barnatuko dituzte. Irakasleak erranaldi hau arbelean idatziko du eta ikasleei egoera marrazaraziko:</p> <p><i>“Azken egur puska erre zuten eta aldaxka mehe batzuk baizik ez zitzaizkien gelditzen, azken opil baten erretzeko.”</i></p> <p>Ikasleek pertsonaiak ez dituzte ezagutzen baina jarduera horren bidez testuingurua ulertu dutenez ageriko da.</p>

Ikastalde osoa	<p>Marrazkiak afixa litezke eta hastapeneko testuari begira kanoretsua denetz eztabaidatuko. Ikasleen marrazkietan testuingurua ageri ote da? (basamortua, nomaden oihal etxe batean, pobrezia...)</p> <p>Irakasleak ikasleei galdeginen die “Zuen ustez horrelako egoera batean nola senti dira jende horiek?”</p> <p>Eztabaidatuko da eta hurrek proposamenak egin arau, hitz batzuen erranahiak arbelean edo afixa batean idatziko ditu irakasleak (“griña, triste” ...)</p> <p>Arbelean idatziriko hitzak atxikiko dira.</p>
Ikastalde osoa	<p>Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</p>

8. saioa - Hiru bidaiariak

Helburuak

Ipuinaren giroaren ulertzea eta justifikatzea seinaleak azpimarratuz: gizon-emazteen gabeziak eta arrangurak

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	<p>2) Gizon-emazteen egoera</p> <p>Aitzineko saioan aipatu pertsonaien egoera eta sentimenduak oroitaraziko dira eta arbelean edo afixa batean idatziriko hiztegia irakurriko.</p> <p><i>Ir: “Irakurri genuen erranaldian, gizon eta emazte baten pobrezia ageri da.</i></p> <p><i>Ipuinaren segidaren zati bat banatuko dizuet eta haien egoeraren eta sentimenduen hobeki ulertzeko, gabezia eta arrangurak erakusten dituzten seinaleak gainmarkatuko dituzue.”</i></p>
Binaka	<p>“7. Gizon eta emaztearen kezka” fitxa banatuko zaie eta agindua irakurraraziko eta beste gisa batez erranaraziko.</p>
Ikastalde osoa	<p>Testua bideo proiektatua izanen da eta talde osoan seinaleak gainmarkatuko dira.</p> <div data-bbox="119 1724 223 1792">  </div> <p>Azken egur puska erre zuten eta aldaxka mehe batzuk baizik ez zitzaizkien gelditzen, azken opil baten erretzeko.</p> <p>– Nola iraganen dugu ondoko eguna? Zer janen dugu? Duterik ez dugu eta norbait etor baledi... nola egin genezake?</p> <p>Hiru ahurtara gari baizik ez zitzaizen gelditzen, bizpahiru egur puska eta putzutik jalgi ur gazia.</p> <p>Hiru gizon hurbiltzen ikusi zituztelarik han, zerumugan, mendiaren bestaldean, griña handitu zitzaizen.</p> <p>– Nola egin genezake ongi etorria duterik ez dugularik eskaintzeko?</p> <p>– Ura beroaraz dezagun, zioen gizonak sorik eman gabe bere emazteari.</p>

	<p>- Putzuko ur gazi hau ? - Nola egin bestela ?</p> <p>Hiru gizonak hurrenago, hurbilago eta gizonaren tristezia handiago.</p> <p>Pertsonaien gabeziaren eta arranguren sentiarazteko, idazleak erabiltzen dituen hitz motak zerrenda itzazue (ikus zuzenketa proposamena USB gakoan):</p> <ul style="list-style-type: none"> - errepikapena: “ ... baizik ez zitzaizkien gelditzen, azken” - izenek, adjektiboek edo determinatzaileek <u>kantitate ttipia</u> azpimarratzen dute (Egur puska, aldaxka / Batzuk, hiru, bizpahiru / azken, mehe) - ezeztapenak: .. duterik ez dugularik - kontrastea: “Ez da deus normala”: putzutik jalgi ur gazia hala ere beroaraztea proposatzen du <p>Hiru gizonak hurbilago / gizonaren tristezia handiago.</p> <ul style="list-style-type: none"> - galdera ainitz ... geroa eta ahalera denboran. Azken galderak aterabiderik gabe direla erakusten du: “Nola egin bestela?” - hitz zenbaitek arrangura molde esplizituan adierazten dute (grina, tristezia handiago) <p>Ikasleei inplizitua dena ondorioztaraziko die irakasleak. “... gizonak sorik eman gabe bere emazteari”: egoera hain zaila da eta gizonaren proposamena hain desesperatua non gizona ez baita emazteari so egitea ere ausartzen... ahalke ote da?</p>
Bakarka	<p>Irakasleak Hiru bidaiari ipuinaren segidaren zatiak banatuko dizkie ikasleei eta bakarka ordenan ezarriko dituzte.</p> <p>* Irakasleak talde batekin lan egin lezake</p> <p>“8. Zatiak ordenan ezarri” fitxa</p>
Ikastalde osoa	<p>Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</p>

9. saioa - Hiru bidaiariak

Saio honetan liburua hurrei emanen diezue.

Helburuak

Ipuin osoaren irakurtzea, kontatzea eta sentimenduen adieraztea
"Liburu" objektuaren aztertzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Bakarka	Isiltasunean begiratuko eta irakurriko dute.
Taldeka	<p>Ir: “Taldeka ariko zarete, eta "liburu" objektuari buruz eta horretan kontatua den istorioari buruz eztabaidatuko duzue.</p> <p>1) Liburu horren:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ezaugarriak deskribatuko dituzue. - Ilustrazioak deskribatuko dituzue: zer teknika erabili ote du? Teknika horrek zer ekartzen ote dio ipuinari, giroari... - Testuen eta irudien arteko lotura aipatuko duzue. Ipuina ulertzen ahal ote da testua baizik ez erabiliz? Marrazkiek irakurlea laguntzen ote dute? Ipuina ulertzen ahal ote da marrazkiei baizik ez so eginez?

	2) Ipuinaren bukaeran ulertu duzuen aipatuko duzue. Ipuin hori irakurri eta zer sentimendu dituzue?
Ikastalde osoa	<p>Bilduma eginen duzue:</p> <p>1) * Liburu ttipi, handi, italiar formatuan (horizontala), etzanik, izariaren hautuak badu loturarik ipuinarekin: <i>Hiru bidaiariak</i> albumean basamortuaren lasaitasunaren eta handitasunaren erakusteko izari horizontala hautatua izan da.</p> <p>* Teknika kontuan hartzen da, moldaketa orrialdean, koadroak eta ikuspuntua, koloreak, marrazkien irudimena..</p> <p>* Testuen eta irudien arteko lotura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irudiak dutearen zerbitzatzeko moldea adierazten du. - Saharako jendearen arrangurak beste gisa batez erakusten ditu. <p>2) Testuaren ulermena barnatuko duzue.</p> <p>* Hiru bidaiariak bi bidaia mota egiten dituzte; zein ote dira? (bidaia basamortuan oinez, eta bidaia ipuinaren bidez)</p>
Binaka	<i>Ir: Binaka ariko zarete. Lehenik ipuina elkarri kontatuko diozue eta ondotik ipuin hori entzunez edo kontatuz zer sentitzen duzuen erranen duzue.</i>
Bakarka	Ikasle bakoitzak ipuin horri buruzko sentimenduak idatziko ditu irakurle liburuxkan. Liburuko lerro batzuk kopia ditzakete.
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

10. saioa - Hiru bidaiariak ... Luzapenak

Helburuak

Hiru bidaiariak ipuineko giroa barnatu ondoren, ikasleek Euskal Herriari buruzko irudi baten eraikitzea
Iturri testuen eta *Hiru bidaiariak* ipuinaren konparatzea

1 Hiru bidaiariak ... Euskal Herrian	
Binaka	<p><i>Ir: “ Hiru bidaiariak ipuina irakurriz berberean munduan sartzen gara. Eta zuek euskal mundua norbaiti adierazteko zer erranen zenioke? Ipuinaren hastapeneko egitura erabiliz, idatz ezazu.”</i></p> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin-top: 10px;"> <p><i>Gure mundua, basamortutarrena, haizearen eremua da, gure mintzaira, populu ibiltariena, tamazig deitzen da. Gure idazkera, gizon urdinena, nomaden idazkera da.</i></p> <p><i>Gure mundua, eremua da, Gure mintzaira, deitzen da. Gure idazkera, idazkera da.</i></p> </div>
Ikastalde osoa	<p>Ikasleek binaka egin dituzten ekoizpenak irakur litzakete.</p> <p>Ondotik, <i>Hiru bidaiariak</i> albumeko ilustrazioen teknika erabiliz, ikasle bakoitzak Euskal Herriko irudi bat egin lezake.</p> <p>Irakasleak teknika azalduko die ikasleei.</p>

	<p>“Collage” teknika erabiliz obra baten egiteko hiru urrats badira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Paperaren eta kolorearen biltzea (iragarkiak, kolorezko paperak, bigarren eskuko aldizkariak) eta eskuz urratzea (irregulartasunek bizia ematen ahal diote obrari). - Marraskia aitzinetik pentsatzea arkatzez egin daiteke aitzinetik edo zuzenki kolatu aitzin-marraskirik egin gabe. <p>Itxura sinpleak hautatuko dira denbora hastapen batean : itsasoaren uhinak, mendiak eta zelaiak, lerroak edo kurbak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Obraren eraikitzea elementu desberdinak elkartuz. <p>Lanaren errazteko, euskarria da kolaz estaliko eta paperak gainetik pausatuko.</p>
Bakarka	Ikasle bakoitzak bere ilustrazioa eraikiko du.
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

2) *Hiru bidaiariak* ipuinaren eta idazleak erabili testu iturrien konparatzea.

Bi edo hiruak	<p>Hiru bidaiariak <i>albuma irakurtzean, parekatzen ahal da bi testu ezagunekin, bata Bibliatik jalgia, bestea ahozko literaturatik, Mila gau eta bat gehiago ipuin bildumatik.</i></p> <p>Zer elementu aurkitzen dira hiru liburuetan?</p> <p><i>“Hiru ipuinen artean loturak egin itzazu” 9. fitxa</i></p>
---------------	---

11. saioa ...

Helburuak

Bidaiari buruzko irakurketa sarearen osatzea

Bidaiari buruz gogoetatzea eta nork bere sentimenduen adieraztea